

EIBAR, 1993  
AZAROAREN 22-30 NOVIEMBRE

**XXIV.  
SEILU  
ERAKUSKETA**  
(ESTATU MAILAKOA)

**XXIV.  
EXPOSICION  
FILATELICA**  
(AMBITO ESTATAL)



PEDRO BASAURI "PEDRUTXO"  
(1893-1993) JAIOZAREN  
100. URTEURRENA

\*\*\*

CENTENARIO DEL NACIMIENTO  
DE PEDRO BASAURI  
"PEDRUCHO" (1893-1993)

---

**BATZORDE ANTOLATZAILEA  
COMISIÓN ORGANIZADORA**

Fidel Saez  
Juan Gómez  
Alberto Elizondo  
Luis M<sup>o</sup> Aristegui  
Máximo Moñuz  
Diego Aguilar

**ERAKUSKETA JARTZEKO  
ARDURA DUTENAK  
COMISIÓN MONTAJE**

Pablo Bergara  
Fernando Rico  
Julia Elorduy  
Florencio Lecumberri  
Santiago Badas  
Alberto Elizondo

**ARRATE FILATELI ELKARTEA  
ASOCIACION FILATELICA ARRATE**



*"Pedrutxo". Lucas Alberdiren dibujoa.*

---

# PEDRO BASAURI PAGUAGA

## “PEDRUTXO” (1893-1973):

### 1993: JAIOTZAREN

### 100. URTEURRENA

• • •

**1**893. urtean, azaroaren 30ean Eibarren Pedro Basauri Pagoaga jaio zen. Antonio Solera jaunak dioenez ordea, egun horretantxe hiru urte geroago jaio zen Eibarren. Arragueta kalean. Bere aita Emeterio eta ama Romanak Bartzelonara eraman zuten jaio eta laster, han bere aita osaba baten arma-fabrika batean lanean hasi bait zen. Pedro Basauri-k, “Eibarko Pedrutxo” izenordea erabili zuen toreatzaile egin zenean.

Eibarren 1914. urtean bertako gazte batzuek toreatzaile-kuadrila osatu zuten Eduardo Atxa “Atxita” buru zelaririk. Pedro Basauri “Pedrutxo” eibartarra bestetik Bartzelonan bizi zen bere familiarekin eta egun batean Sacas izeneko jaun bat ezagutu zuen. Hark behiekin ikuskizun irrigarriak antolatzen zituen eta Pedrutxo eibartarra indiar jantzian atera zen Bartzelonetako plazan. Basuri berak bost pezeta ordaindu behar izan zituen behia toreatzeagatik. Behi handi eta aurrez toreatua izanagatik, Basauri geldirik egon zen eta kapotez luzitza lortu zuen.

Hurrengo saioan hamar erreal bakarrik ordaindu zituen eibartarrak. Pueblonuevo-ko San Martin auzoan zezenzale batzuek aukera eman zioten Pedro Basauri-ri prepara zedin. Traje distiratsua lehen aldiz Eibarren jantzi zuen nobillada batean. Iluminado Saenz “Iluminadito” eta Celso Saenz “Armerito” eibartar nobilleroen ordezeko ezpatari gisa sartu zuten kartelean. Lehen zezenkoa plazaratu bezain azkar ordea, eskubakar-lantze faroldua eman zion Pedrok eta kapotez toreatzen segitu zuen, jendea txundituta utzirik.

1914. urtean, Bartzelonako Las Arenas-eko plazan zezenkoak hiltzera lehen aldiz aurkeztu zen Cereceda eta Pacheco-rekin batera; belarria moztu zion bere zezenkoari.

Bartzelonan lehiaketa bat irabazi zuelako, pikatzailedun nobilladatan hasteko aukera izan zuen 1916.ean. Plazako ikuiluetan Bohórquez-en zezen handi bat zegoela jakin zuenean, enpresariari hura nahi zuela adierazi zion. 585 kilokoa eta zazpi urtekoa zen zezen hura, baina hala eta guztiz ere Pedro

Basaurik ederki toreatu eta hil zuen. Urriaren leian Bartzelonako Las Arenas-eko plazan Rafael Toboso-rekin batera aurkeztu zen Perez de la Concha-ren lau zezenko pikatzaileekin toreatzera. Oso ondo egon zelako, Madrilen hiru nobilladatan toreatzeko eskaintza egin zioten eta baita Bartzelonan beste sei toreatzeko ere. Baldintza bat jarri zioten ordea: Madril eta Bartzelonako enpresariak akordiora heldu arte Bartzelonan ez toreatzea. "Pedrutxo" ordea hurrengo igandean Las Arenas-eko plazan toreatzeko hitz emanda zegoen eta toreatu egin zuen. Madrileko enpresaria haserretu egin zen.

Arrakasta handiak zituen arratsaldero plazetan eta Julian Etxebarria Madriletik bila joan zitzaion Bartzelonara. Ados jarri ziren biak bilbotarraren plazetan torea zezan, baina etxera-koan Etxebarria enpresaria istripuz hil egin zen errepidean. Enpresari bilbotarrak 46 urte zeuzkan orduan. Pedro Basaurik, dena dela, zezen plazetan borroka eta lana fin eginez bere kontratuak lortu zituen. Sevillan Mihuraren zezenkoak Eugenio Bentoldrá eta "Romerito de Sevilla"rekin batera hil zituen. Bere bi zezenkoen belarria eman zioten eta bizkar gainean atera zuten plazatik txalo artean.

"Pedrutxo" Donostian, 1918ko irailaren 15ean aurkeztu zen lehen aldiz. Remigio Frutos "Algeteño"rekin batera toreatu zuen, arrakasta handia lortuz.

1919.eko ekainaren 19an, Villagodio-ko markesaren sei zezenko toreatu zituzten Bilboko Vista Alegre-n Manuel Sagasti, Lorenzo Ocejo eta "Eibarko Pedrutxo"k.

1919. urtean, uztailaren 20an,

Madrilen aurkeztu zen "Pedrutxo" Ernesto Pastor eta Juan Luis de la Rosa-rekin, Villamarta-ren zezenkoak toreatzera. Eibartarrak demaseko arrakasta lortu zuen eta 21 nobillada toreatu zituen urte hartan.

1920. urtean, hamalau arratsaldero lan egin zuen Basaurik.

Zezenko-hiltzaile gisa fama hartzen ari zen. 1921. urtean, bere bizimoduaz liburuxka bat atera zuen Juan Torrabadella "Don Juan" idazle kataluniarrak Bartzelonan. "La vida y arte de Pedrutxo" zen liburuxkaren izena.

Bartzelonan zineko artista ere izan zen. Henri Vorins frantziar zuzendariak egindako "Pobres niños" eta batez ere "Militona o la tragedia de un torero" izeneko filmetan (azken hori Theophile Gautier-en nobela baten oinarritua), paper garrantzitsua antzeztu zuen. Paulette Landais izan zen emakumezkoaren papera egin zuen aktorea. Pedro Basauri zezenplazan bezain artista agertu zitzaien guztiei kamera aurrean. Zezenplazetan 1921.ean hamabi nobillada toreatu zituen. Donostian maiatzaren 29an Domingo Uriarte bizkaitarrak eta berak Villagodio-ren lau zezenko toreatu zituzten. Eibartarraren lana asko gustatu zen. Arratsalde hartantxe Demetrio Castro donostiarrak Lasturreko bi zezenko hil zituen. Latina ere bazekiten bi zezenko txiki eta zail haiek!. Lehenengoari belarria ebagi zion. Jorge Biguesa ere Donostian bizi zen eta garai hartan banderilari gisa egiten zuen lan.

Ekainaren 5ean, Donostiako Txofren nobillada ematekoa zen, baina Villagodio-ren zezenko guztiak garaiz iritsi ez zirelako, azkenean, ekainaren 10ean ospatu zen. Sei zezenko suhar eta noble haiekin Domingo Uriarte,



*"Pedrutxo", "Manolete" etb.*

Manuel Sagasti eta "Pedrutxo"k Villagodio-ren lau zezenko toreatu zituzten. Uriarte oso txalotua izan zen eta Sagasti bizkar gainean atera zuten, baina benetako arrakasta Basaurik lortu zuen, zezenko belarria eskuratuz.

Arrakasta horren ondorioz, donostiar zezenzale batzuk beste nobillada bat antolatu zuten leku berean eta toreatzaile beraiekin ekainaren 19rako. Lleneko markesaren sei zezenkoak ordea, ez ziren ongi portatu eta hiru ezpatarien asmo ona besterik ez zen ikusi.

Uztailaren 25ean berriz lan egin zuen Pedro Basauri-k, Angel Navas "Gallito de Zafra" eta Juan Sanchez "Jumillano"rekin batera, Donostian berriz ere. Zamorako Angel Rivas-en sei zezenko adarluze eta koldarrekin "Gallito de Zafra"k gauza ederrak egin

zituen, Pedrutxo oso ausart aritu zen eta "Jumillano"k nahikoa egin zuen bere zauri eta herren harekin plazatik onik ateratzearekin.

Iluminado Saenz "Iluminadito" eibartarra 1922. urtean banderilari gisa omen zebilen nobillada apaletan toreatuz. Pedro Basauri-rentzat ordea oso urte ona izan zen hura. Hogei nobilladatan parte hartu zuen. Azaroaren 20an, Bartzelonan, berebiziko giroa sortuta plazako jendea erabat bereganatu zuen. "Pedrucho" izeneko pelikula batean protagonistaren papera antzeztu zuen 1922. urtean. Henri Vorins-en zuzendaritzapean egindako pelikula hartan, egiazko korrida bateko faena filmatu zuten Bartzelonan, eta hain zuzen espontaneo bat zezenak adarkatu eta hil egin zen. Filmean agertzen da heriotz hori.

Azpeitiako Saninaziotan 1923. urtean bi nobillada izan ziren; uztailaren 31n bata eta abenduaren leian bestea. Eibarko "Pedrutxo" eta Martin Aguerok Rafael Lamamie de Clairac-en zezenkoak hil zituzten. Lehen nobilladan eibartarra txalotua izan zen bere bi zezenkoetan. Bigarren nobilladan, Basauri-ren bigarren zezenkoan bakarrik jo zituen txaloak jendeak. "Pedrutxo"k Inazio Zuluaga margolariari eskaini zion zezen bat. Zuluaga-k bukeran, bere etxera gonbidatu zuen Basauri, atseginen zitzaion koadroa beretzat har zezan. Ez zion jaramonik egin "Pedrutxo"k.

Beste behin, Bogotan aberats batek esmeralda batzuk eman nahi izan zituzkion zezena eskaintzeagatik, baina eibartarrak ez zituzkion hartu bere adiskidetasunaz nahikoa zuela esanez.

Irailaren 2an, Donostiako Txofren alternatiba hartu zuen. Lehenbizi Antonio Cañero burtzikari cordobar famatuak Graciliano Perez Taberneroren bi zezen toreatu eta hil zituen zaldiz. Ondoren, Julian Saiz "Salari II" a, Enrique Cano "Gavira" eta Pedro Basauri "Pedrutxo"ren txanda izan zen. Eibartar asko zegeon plazan arratsalde hartan.

Graciliano Perez Taberneroren zezena plazaratu zenean, euria hasi zuen. Kiteak hiru ezpatariak egin zituzten, eta gero "Pedrutxo"k banderilapare bat sartu zion zezenari txalo artean. "Salari II"ak muleta eta ezpata utzi zituzkion gero eibartarrari. Pase dotore batzuk osatu zituen bere faena txukunean eta ezpata sartu zionean txalo ugari entzun zuen.

1924. urtean, "Pedrutxo"k oso leku bitxietan toreatu zuen. Maiatzaren leian Sardinia (Cerdeña erderaz) irlako

Cagliari hirian hain zuzen. Han adarrez kolpatu zuen zezenak sabelean eibartarra.

Erroman Stadio Nazionale-n 50.000 ikusle zirela korridak izan ziren 1924ko ekainaren 22, 24, 29 eta uztailaren 6an. Lehen korridan, "Rodalito" eta Pedro Basaurik Albaserrada-ko markesaren zezenak hil zituzten. Bigarrenean, Hidalgorenak. Hungariako Budapest hiriburuan ere beste hiru korrida toreatu zituen 1924. urtean. Egipto-ko AlKairo-n ere toreatu zuen.

1925.eko denboraldian estatu espainolean bost korrida toreatu eta ondoren Ameriketara joan zen, han hiru korrida toreatzeko kontratua eginda. Askoz gehiago toreatu zituen ordea Venezuela, Colombia, Bolivia eta abarretan, fama eta dirua irabaziz. "Pedrucho" izeneko filmea, bera protagonista zenekoa, proiektatu zen Hegoameriketara eta Hollywood-era ere eramanez nahi izan zuten, baina eibartarra zinemarako loturak hautsi eta zezenfestei lotu zitzaion. Urte hartan, Marseille-n, Martin Basauri, "Pedrutxo"ren anaia, hil egin zen Camargue-ko zezen batek bihotzean adarkatuta banderila-parea sartzen ari zitzaioa.

1927ko otsailean Ameriketatik itzuli zen eta apirilaren 17an Bartzelonan Braulio Lausin "Gitanillo de Riela"rekin batera Florentino Sotomayor-ren sei zezen toreatu zituen. Arrakasta lortu zuen eibartarrak orduan eta ondorioz beste zazpi korridatan parte hartzeko aukera ere izan zuen. Korrida haietako bat irailaren 25ean ospatu zen Madrilan, bide batez alternatiba sendotuz. Gabriel Gonzalez-en sei zezen ikaragarri plazaratu zituzten Serafin Bigiola "Torkito", Pedro Basauri eta Bernardo Muñoz "Carnicerito de Málaga"k torea zitzaten. Serafin-ek

“Pedrutxo”ri zezena hiltzeko tresnak utzi zizkionean, honako hau esan zion: “Tangoa dantzatzeko dakizun bezain ongi torea dezazun opa dizut”, izan ere, dantzari ona baitzen eibartarra. Arratsalde hartan, itxuraz aritu zen toreaizaile bakarra Basauri izan zen.

1928. urtean, toreatzen ari zen. Bederatzi korridatan parte hartu zuen. Bat ezik, beste korrida guztiak Bartzelonan eta Frantzia toreatu zituen.

1929. urtean bost korrida bakarrik toreatu zituen. Haietako bat Marseillen eman zen, lau urte lehenago han bertan hildako Martin “Pedrutxo II”ari hilerrian mausoleoa eraiki asmoz. Camargue-ko zezenak toreatu zituen, Pierre Boudin “Pouly IIIa”, Jose Belmonte eta Francisco Peralta “Facultades”ekin. Haietako zezen batek adarkatua, hilzorian egon zen Pedro Basauri. Marseille-en zegoen zirujanu ospetsu batek operatu zuen.”

1930. urtean ez zuen asko toreatzeko aukerarik izan. Guztira sei korrida toreatu zituen. Maiatzaren 25ean Bartzelonan bera bakarrik aritu zen Gonzalez Nandin-en sei zezen ikaragarri toreatzen. Zezenak beldurgarriak ziren eta Diego Markiaren “Fortunak” korrida baino lehen mehatxu egin omen zion haiek toreatzera ausartzen bazen muturrekoa emango ziola esanez. Hain ziren arriskutsuak nonbait Gonzalez Nandin-en abere haiek. 20.000 ikusle inguru bildu ziren arratsalde hartan zezenplazara.

Korrida hartan arrakasta handia lortu zuen nahiz eta seigarren zezenak adarkatu eta erizaindegira erretiratu. Hara eraman zizkioten belarri biak eta buztana. Istripu hura gertatuz gero, “Pedrutxo”k zangoan gogorrune bat omen zuen eta bi urte t’erdi geroago argitu zen arrazoia: zezenaren adar-pusketa zeukan barruan.

Ekainaren 8an ere toreatu zuen, Bartzelonan bertan. Conradi-ren zezen

batek larriki zauritu zuen orduan eta ondorioz korridaren bat toreatzerari utzi egin behar izan zion.

1931. urtean zortzi aldiz jantzi zuen traje distiratsua.

Orain arte alternatiba eskuratutako toreadore gipuzkoarrak Mazzantini, Basauri eta Rekondo izan dira.

Iruñean, 1931. urteko Gorpuzti egunean, korrida izan zen “Pedrutxo” eta “El Exquisito” toreatzaile zirela.

1932. urtean zazpi korridatan hartu zuen parte. 1933. urtean sei korridatan parte hartu zuen.

1934. urtean sei korridatan hartu zuen parte. 1935. urtean hiru korrida bakarrik: bi Bartzelonan eta bat Donostian. 1936. urtean, sei arratsaldetan jantzi zuen traje distiratsua.

1937ko maiatzaren 16an alternatiba eman zion Silvino Zafón-i “Niño de la Estrella”ri.

Basauri Viena-ko neska batekin ezkondu zen eta zezenen mundutik aparte geratzen joan zen bere emazteak ez zuelako mundu hori maite. Handik gerora, Bartzelonan, zezen-eskola bat sortu zuen.

Laburtuta, hori izan zen “Pedrutxo”ren bizitza. Askotan galdetu izan dugu zergatik ez ote dagoen Tauromakiaren historian toki aproposago batean, toreatzaile onaren ezaugarri guztiak bait zeuzkan: ausarta adarren aurrean, kapotea eta muleta erabiltzen trebea, eta zezena hiltzera zoanean, onenaren parean egoten zen.

Bere bizitzan jaso zituen hiru abisu bakarrak Donostian jaso zituen. Euskal erara egindako zezenketa hartan, Tafallako Santurio Torón-ekin aritu zen. Lehendabiziko zezen bien belarriak eskuratu zituen. Oso ondo ziharduen baina sastakariak ez zuen azertatu eta Pedrutxo-k ez zuen aukerarik izan zezen hura hiltzeko. Hiru abisuak jaso zituen.



---

Euskal Herriko egunkariak gogor kritikatu zuten orduan eta bera penatan geratu omen zen.

1958. urtean, Eibarren, "Eibarko Pedrutxo Peña" sortu zuten Esteban Orbea jaunaren gidaritzapean. Era horretan, Eibarrek ohore egin nahi izan

zion Eibarren jaio eta Bartzelonan 1973. urtean hil zen "Pedrutxo" torea-tzaile handiari.

**"ZEZENAK EUSKAL HERRIAN" IÑAKI  
AZKUNEREN  
LIBURUTIK JASOA.**

**XXIV. ERAKUSKETA FILATELIKOA  
XXIV EXPOSICION FILATELICA**

**ERAKUSKETAREN NONDIK-NORAKOA  
ORDEN DE EXPOSICION**

BITRINEN ZKIA Nº DE VITRINA	IZENA NOMBRE	HERRIA POBLACION	GAIA TEMA
--------------------------------	-----------------	---------------------	--------------

**1. SAILA - SECCION 1ª**

**"POSTAGINTZAREN HISTORIA" - HISTORIA POSTAL**

1-6	Jose Antonio Insausti Gervas	DONOSTIA	"La guerra civil en Euskal Herria"
7-12	Ignacio Rojo Viu	IRUN	"El Correo"
13-18	Carlos Celles Anibarro	ALGORTA	"Relaciones postales Hispano-Francesas"

**2. SAILA- SECCION 2ª**

**"ESPAÑA"**

19-24	Jose Pedro Gómez-Aguero	ARGANDA	"Sobre los cielos de España"
25-29	José Manuel Barreiro García	A CORUÑA	"Monasterios e instituciones religiosas"
30-35	Joan Zahonero Felip	BARCELONA	"Historia postal 1936-61"
36-39	Iñaki Intxaurreaga Menoyo	BILBAO	"Pro-tuberculosos"

**3. SAILA- SECCION 3ª**

**"HERRIALDEAK" - PAISES**

40-45	Santiago Burgui Alvarez	DONOSTIA	"Alemania Oriental"
46-50	Félix Rodero Cuesta	EIBAR	"Cuba"
51-55	Paqui Martínez	SESTAO	"Australia"
56-61	José Freijanes Domínguez	A CORUÑA	"Israel"

**4. SAILA - SECCION 4ª**

**"GAI OROKORRAK" - TEMATICA GENERAL**

62-65	Luis Ignacio Rollán	GIJON	"El caballo"
66-71	Ignacio Herrero Iriarte	PASAIA	"Los medios de transporte"
72-76	José Jerónimo Barral	GIJON	"Historia del fútbol"
77-81	Manuel de la Concepción	ALGORTA	"Evolución de la Navegación a Vela"
82-86	Leandro Gómez de Pedro	MARCHAMALO	"El mundo de los Hongos"

87-89	Feliciano Vez	BASAURI	"Biósfera de Urdabai"
90-92	Antonio Vivanco González	IRUN	"Evolución del automóvil"
93-97	Fidel Caballero González	LAS ARENAS	"Olimpiadas"
98-102	Julen Markuartu	MIRAVALLS	"Culturas precolombinas"
103-106	José Luis González González	SEVILLA	"Arquitectura religiosa"
107-112	Segundo Heredia Machado	HUELVA	"Vehículos automóbiles"
113-118	Bernard Denis-Etxaburu	ANGLET	"La viña y el vino"
119-123	Julio Loperosa Espliego	GUADALAJARA	"El Rosario"
124-129	Miguel Primo Núñez	ASTORGA	"Heráldica"
130-135	Fco. Fernández García	DONOSTIA	"La vida del hombre prehistórico".

#### 5. SAILA-SECCION 5ª

##### "HERRIKOAK ZUZPERTU" - PROMOCION LOCAL

136-140	José Fco. Miguel Arnaiz	EIBAR	"Atletismo"
141-146	José Carlos López López	SORALUZE	"Pintura"

#### 6. SAILA- SECCION 6ª

##### "GAZTEAK 14-15 urtekoak" - JUVENILES 14-15 años

147-148	Gorka Vivanco Juarros	IRUN	"Aves"
149-151	Maria Luisa Santiago Gilabert	GUADALAJARA	"Navidad"

#### 7. SAILA - SECCION 7ª

##### "GAZTEAK 16-17 urtekoak" - JUVENILES 16-17 años

152-154	Laura Gómez-Agüero	ARGANDA	"Los Derechos humanos"
155-157	Aitor García Gurrutxaga	BURGOS	"Bélgica"
158-160	Fernando Martínez González	BURGOS	"La II. Gerra Mundial"

#### 8. SAILA- SECCION 8ª

##### "GAZTEAK 18-19 urtekoak" - JUVENILES 18-19 AÑOS

161-163	Pablo Gutierrez Gil	GUADALAJARA	"Commemoración del Sello español"
164-166	Carolina Grandela	MADRID	"Enlaces aereos"
167-169	Nuria Pérez Maríjuan	BURGOS	"El mejor amigo del hombre"

#### LEHIAKETAZ KANPO - FUERA DE CONCURSO

##### GAIA: ZEZENAK - TEMA: LOS TOROS

170-175	José Angel López	DONOSTIA	"La fiesta brava"
176-180	Roberto Cabañas	BILBO	"La fiesta de los toros"

---

# **PEDRO BASAURI PAGUAGA**

## **“PEDRUCHO” (1893-1973)**

### **1993: CENTENARIO DE SU NACIMIENTO**



**E**l día 30 de Noviembre de 1893, nació en Eibar, en la Calle Arragüeta nº6, PEDRO BASAURI PAGUAGA, que con el tiempo y con el nombre de “PEDRUCHO” sería el torero de más valor de su época.

Su infancia en Eibar fue corta, pues, al poco de nacer, sus padres, Emeterio Basauri y Romana Paguaga, decidieron emigrar a Barcelona para ingresar su padre a trabajar como maestro armero en la fábrica “SCHILLING Y PAGUAGA” donde el hermano de su madre era socio.

Su vida como estudiante fue también corta: curso con buen aprovechamiento la primera enseñanza pero su afición por los toros le apartó de los estudios. Sus padres intentaron quitarle la afición con castigos y correctivos que no consiguieron sino estimular aún más la pasión que sentía por los toros. Su padre le llevó a trabajar con él a la fábrica, donde demostró excepcionales


aptitudes para el oficio de armero.

“PEDRUCHO”, por fin, consiguió enfrentarse a un toro, pero no como torero sino como un bufo, vestido de indio, en un espectáculo de vaquillas que se organizaba en la Plaza de toros de la Barceloneta.

En el barrio de San Martín de Puëblonuevo, la peña “Club Jaquetón” le dió la oportunidad de realizar su preparación taurina.

Viste su primer traje de luces en Eibar, en una novillada sin caballos en la que salió como sobresaliente y en la que actuaban dos toreros que vivían en Eibar, “Iluminadito” y “Armerito” que disfrutaban de un buen cartel. Apenas pisó la arena el primer novillo, sin pedir permiso, “Pedrucho” se fue a él. Al final, salió a hombros en medio del entusiasmo general.

En 1914 consigue debutar como matador en una novillada en la Plaza de las Arenas de Barcelona, alternando con Cereceda y Pacheco, obteniendo un gran éxito al cortarle la oreja al novillo.



Fasa Dn.  
Katarino Salera  
recuerdo de su  
amigo  
Pedro de Bapau  
Pedrucho

En 1915 sigue toreando novilladas económicas en Barcelona con gran éxito.

En 1916, gana un concurso de novilleros que le da acceso a torear con caballos. El 1 de octubre del mismo año, torea su primera novillada con caballos en la plaza de las Arenas alternando mano a mano con Rafael Toboso, en la lidia y muerte de cuatro novillos de Pérez de la Concha, de Sevilla. Su arte es tan bueno que, a la muerte de su primer novillo, el público salta al ruedo y le pasean a hombros con las dos orejas cortadas. La crítica empezó a llamarlo "MESIAS DEL TOREO". A partir de ese día, figura entre los novilleros más destacados. La presentación en Sevilla, con toros de Miura, alternando con Eugenio Ventoldra y con "Romerito de Sevilla" fue apoteósica. Cortó las orejas de sus dos toros en una tarde plena de inspiración saliendo a hombros por la puerta del Príncipe y siendo paseado por Sevilla seguido de cinco mil a seis mil aficionados.

El 15 de septiembre de 1918 actuó por primera vez en San Sebastián, obteniendo un gran éxito en compañía de "Algeteño" que alternó con él esa tarde.

El 20 de Julio de 1919 se presenta en Madrid después de varias ofertas, todas malogradas por diferentes circunstancias. Completaron la terna Ernesto Pastor y Juan Luis de la Rosa (que también se estrenaba ese día). Los novillos fueron de Villamarta y "Pedrucho" obtuvo un gran triunfo. Torea veintidós novilladas triunfales en dicho año.

También actuó en Azpeitia con Martín Agüero en la lidia de unos novillos de Lamamié de Clairacq.

El 29 de Mayo de 1921 actúa por segunda vez en San Sebastián, estoqueando cuatro novillos de Villagodio con Domingo Uriarte. Esa misma tarde actuó el novillero donostiarra Demetrio Castro con dos novillos de Lastur y cortó

oreja en su primero. El día 10 de junio los tres novilleros, "Pedrucho", Domingo Uriarte y Manuel Sagasti actuaron con seis novillos de Villagodio que dieron un excelente juego por su bravura. El eibarrés cortó oreja en sus dos toros tras una gran actuación.

El día 19, con el mismo cartel, se celebró otra novillada con novillos del Marqués de Llen. El ganado no dio el juego esperado y los tres espadas sólo pudieron exhibir buena voluntad.

El día 25 de julio, volvió a actuar en San Sebastián con novillos de Angel Rivas de Zamora, toros de buena presencia pero de tremenda mansedumbre. El cartel lo completaban "Gallito de Zafra", el gran triunfador de la temporada anterior y "Jumillano" que a pesar de torear con una herida abierta hizo una corrida digna.

En ese año, el eibarrés toreó 12 novilladas.

En 1922, "Pedrucho" realizó 20 novilladas. El día 19 de noviembre en Barcelona el triunfo fue apoteósico y es uno de los triunfos más sonados de su carrera como novillero. La crítica de Barcelona le dedica unas crónicas muy elogiosas.

Por fin el día 2 de septiembre de 1923 toma la alternativa en San Sebastián de manos del gran torero Julián Saiz "Saleri II". Con ellos alternó Enrique Cano "Gavira" y por delante, según la costumbre, actuó el rejoneador Antonio Cañero. Al terminar de lidiar su toro, cayó tal cantidad de agua que la corrida tuvo que suspenderse lo que le costó una oreja pues la gente se olvidó de agitar el pañuelo ante la tormenta.

El año 1924, la temporada la pasó casi toda en el extranjero. En Roma en unión del matador albaceteño "Rodalito", Budapest con el cordobés "Parejito", Cagliari, Hungría, El Cairo...

En 1925 torea cinco corridas en España y marcha a Venezuela, Bolivia,

y Colombia, donde consigue dos objetivos: conquistar un gran cartel y ganar dinero. Se proyecta en América una película que se llamaba "Pedrucho" de la que es protagonista. El 17 de Abril de 1926 torea en Barcelona con "Gitanillo de Ricla", obeteniendo un gran éxito que les lleva a torear hasta siete corridas juntos. El 25 de septiembre de 1927 confirma su alternativa en Madrid, teniendo como padrinos al torero bilbaíno Serafin Vigiola "Torquito" y en la compañía de Bernardo Muñoz "Carnicerito de Málaga". El ganado era difícil y "Pedrucho" fue el único torero que escuchó aplausos.

El 17 de mayo de 1925 resulta cogido y muerto en la plaza francesa de Marsella el novillero Martín Basauri, hermano de "Pedrucho" que al poner un par de banderillas al quiebro a un toro de la Camargue resultó cogido.

El 18 de agosto de 1929 se celebra en Marsella una corrida benéfica organizada para recaudar fondos y costear un mausoleo donde reposen los restos del novillero fallecido. Actuaron el francés Pierre Pouly, Belmonte, "Facultades" y "Pedrucho" con todos de la Camargue. El eibarrés resultó cogido sufriendo una gravísima cornada que le tuvo entre la vida y la muerte. Fue decisiva la intervención de un eminente cirujano francés para salvarle la vida.

El 25 de Mayo de 1930, en Barcelona se ofrece a matar él sólo seis terribles toros de Nandín. Diago Mazquiarán "Fortuna" al enterarse de que su amigo eibarrés estaba dispuesto a encerrarse con los Nandín, ante el gran peligro que suponían dichos toros le amenazó "Como me entere que sales a torear con esos bichos te doy un puñetazo". Basauri, desoyó los consejos y salió a torearlos en unas condiciones económicas desfavorables pues la misma tarde se celebraba la final de la Copa entre el Athletic de Bilbao y el Real Madrid que haría resentir-

se la taquilla de la plaza de toros. A pesar de todo, cobró dieciocho mil pesetas, cifra fabulosa en la época, puesto que a pesar del partido, "Pedrucho" llevó unas veinte mil personas a la plaza. El último toro de la tarde lo cogió espectacularmente pero todo quedó en una cornada de enfermería. Le dieron las dos orejas y el rabo del último toro.

En 1931 torea seis corridas. En 1932, siete. En 1933 y 1934 seis cada año. En el 35 torea dos en Barcelona y una en San Sebastián.

El 16 de mayo de 1937 concede la alternativa en Barcelona a Silvino Zafón "Niño de la Estrella".

A partir de esas fechas decae notablemente la actividad taurina de "Pedrucho".

Su esposa fue la causante de la retirada de "Pedrucho". A pesar de todo, la inmensa afición por los toros le obliga a desahogarse en la escuela taurina que montó en Barcelona.


Era otra época. José María Cossío es de la opinión de que "es incomprensible que "Pedrucho" no haya ocupado un puesto más distinguido en la tauromaquia". Sus paisanos fundaron en 1958 la Peña "Pedrucho" cumpliéndose así unos de sus grandes deseos. Dicha Peña fue creada a iniciativa de un grupo de aficionados eibarreses a la tauromaquia encabezados por Esteban Orbea. Su primer presidente fue Pedro María Ansola.

Por último cabe destacar que interpretó tres películas, "Pobres niños" dirigida por Henri Vorins, "Melitona o la tragedia de un torero" en la que tuvo un papel destacado y finalmente, la película "Pedrucho" en el año 1922 sobre su vida y dirigida también por Vorins.

Juan Torrabedella, escritor catalán, escribió un libro titulado "La vida y arte de Pedrucho" sobre la vida del torero eibarrés.

"Pedrucho" murió en Barcelona el 23 de septiembre de 1973.

POSTA-SEILUAK  
ETA ZEZENAK  
• • •  
LOS SELLOS Y LOS TOROS







---

## **ANTOLATZAILEA - ORGANIZADOR**

**“Arrate Filateli Elkartea” Asociación Filatélica Arrate**

## **LAGUNTZAILEAK/ COLABORADORES**

**Armeria Ereña, Txoko taberna, Euskadiko Kutxa-CLP, Calcul-Mecano, Eroski, Electro-Mecánicas Aitor, Galerías Preciados, Filatelia Unamuno (Bilbao), Foto Garay, Laurel & Hardy, Vinos Polanco, Irratizaleen Elkartea, El Correo, Deia, Diario Vasco, Egin, Loiola Herri Irratia, Radio Estudio, Arrate Irratia, Onda Cero.**

---

**LAGUNTZAILE BEREZIAK /  
PATROCINADORES**



**GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA**  
Diputación Foral de Gipuzkoa



**EIBARKO UDALA (Ego Ibarra Batzordea)**  
Ayuntamiento de Eibar



**KUTXA**

